ERREPORTAJEA · AURTENGO INAUTERIAK ARGAZKITAN · GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN
· KIROLA ARITZA MONASTERIOK 2001eko JARDUERA ALPINORIK ONENAREN SARIA IRABAZI DU

# BARREN

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko otsailaren 16a/X. urtea/393. zkia



# Datorren urtera arte, disfrazak armairura

# PILAR IKASTETXEA
Elgoibar

## Gurekin Hasi









## Gurekin Hezi

**AURREMATRIKULA EPEA:**
**OTSAILAREN18tik MARTXOAREN lera**

**MATRIKULATZEKO ORDUTEGIA:**
**EGUNERO 9:00etatik 19:00etara**

**ARGIBIDEAK:**
**943741331 telefonoan**

**E.MAIL: nsp42e1g@planalfa.es**



## Edertasunaren kanonak apurtuz

Bazen garaia! 90-60-90 neurriak alde batera utziz, pertsona baten balioa fisikoa baino zerbait gehiago dela konturatu dira azkenean. Ez da erraza gizarte honetan finkatzea, eta are gutxiago edertasunak laguntzen ez badizu. Oraingo honetan, edertasunaren kanonak apurtuz, Rosa izan da "Operaci6n triunfo" Iehiaketaren irabazlea. Poliki-poliki neska lirain guztiak kanporatuz joan dira, eta bera han mantendu da amaierara arte; eta gainera, lehiaketa irabaztea lortu du. Sekulako segurtasuneza erakutsi zuen neskatila, bere ahotsagatik baloratu dute, eta lau hilabeteko epean izugarri aldatu da. Begi bistan da fisikoki egin duen aldaketa, baina psikologikoki hutsaren pare baloratua izatetik, bere burua irabazle bezala ikusten ikasi du. lkuslegoak hasieratik eskaini zion bere babesa. Publikoa inozoa dela esaten da askotan, baina oraingo honetan sekulako lekzioa eman digu, lana eta ahalegina sarituz. Honetaz gain, akademiako irakaslegoari ere zorionak eman beharrean nago. Izan ere, beste askok ez bailiokete Rosari lehiaketa horretan parte hartzeko aukerarik ere emango. Mundu artistikoan arrakasta edertasunarekin lotuta doa askotan, eta hemendik aurrerakoa ez da erraza izango.

Lehenengo pausoa eman du; sekulako jauzia eman duela esan daiteke, eta musikaren munduan tokia badaukala erakutsi digu. Zorionak!

CD

O

O

N

**"Puldikoa inozoa dela esaten da, baina sekulako lekilioa eman digu *Operacinn triunftm*"**

Ainhoa Andonegi



## diruaren hotsa

..horrexek ematen dit maitia, bihotzean poza". Badirudi hau dela baskongadetako bandaren Kontzertu famatu horretan entzun daitekeen kantu bakarra. Taldeko buru denak plañiderak ateratzen zuten zarata baino gehiago ateratzen duela, distortsiorik gabe gainera. Saiatu dira beste kanturen batekin, bertsio hau "money-money" da, baina akordeak bilatu ezinik dabiltza. Hala ere hor diraute kontu-kantu berarekin, ez dakit zenbat denboran zehar. Ez dira konturatzen "a capela" arituz gero, askoz hobeto izango zela, Spanish Band-ekoek ez baitute txistua eta danbolina atsegin, eta hau isilarazteko mikroak ere kentzen dizkiote. Diru kontuekin bezala beste kontu batzutan ere jarrera bera izango balute, beste txori batek abestuko luke hemen

**"diruaren botsa da baskongadoetako bandaren Kontzertuan entzun daitekeen bakarra"**

Disketxe independiente batekin grabatuko balute, Europa KapitalisUr_Wdeko kideek, alde - batetik errespetuarengatik, Europako talde zaharrena delako, eta bestetik, hizkuntza guztietan berdin ahoskatu daitekeelako, CD berriak "xoxa" izena eramango luke (noski, lehendabizi guk onartu beharko genuke E.K. sartzea).

Inauteriak bukatu dira ordea, eta benetako aldaketak izatea nahi badugu, telonero izateari uzteko, mozorroak kendu eta gordetzeko sasoia iritsi da. Batzuk, urte guztietan eramaten dute kareta bat edo bi, dauden lekuan daudela egokiena jartzeko, baina zerbait nahi duenak, zerbait eman behar du, bestela talde herrikoiek Kortaturen kanta abesten jarraituko dute."0i! Billy the Kid bailaretan ez da mugarik zure zaldiarentzat, ganibeta gerrIan, e/athemna saihetsetan. Pobreon anaia zarenez, jakin badakizu edonon delarik ez dugula inortxo ere erasotzen, zapaltzailea ez bada...".

Diru kontuekin bezala beste kontu batzutan jarrera bera izango balute, beste txori batek abestuko luke hemen Kontzertua.

Nestor Fuente

Kexak ........................................ 5
motz MotZ ........................................ 9
gehigarria ........................................ 11
kiRolAk ........................................ 20
aGenda ........................................ 24

## Mila esker denori!

Misqui Gobernuz Kanpoko Erakundearen izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu guztioi, Cuscoko haurrei laguntzeko dugun proiektua burutzen laguntzeagatik. Zuen lankidetzari esker, 19.500 euro bildu ditugu. Diru hori Gemmak berak eramango du bertara, otsailaren 28an, ahalik eta hobekien administra dadin. Diru kopuru hori honako ekimen hauen bidez lortu ahal izan dugu: zozketa-txartelen eta borondaterik onenarekin emandako produktuen salmenta; San Bartolome jaietan jarritako barran eta Gabon Zaharretan jarritako txosnan ateratako dirua; enpresek eta norbanakoek emandako diru laguntzak; eta Barricada, Humus eta Spezial Quest taldeek eskainitako kontzertua.

Misqui taldea

,z-tzer. aen-obizertok, NAN etatelfono zkia

## Erantzuteko ordua da

Partidu Popularraren gobernuak beste pauso bat eman du Euskal Herriaren aurka hasitako bidean: oraingo honetan SEGI eta ASKATASUNA laga ditu legez kanpo; horretarako, Garzon epailearen jarduna erabiliz. Partidu Popularrak Ezker Abertzalearen aurka jotzen du. Lehen Herri Batasuna, HAIKA, Ekin, Zumalabe Fundazioa, Amnistiaren Aldeko Batzordeen... aurka jo zuen moduan, bai baitaki Ezker Abertzalea dela herri honen eskubideak eskuratzeko motorra. Erabaki hauek, euskararen aurkako neurriak, irakaskuntzaren inguruko neurriak, "Hobetuz"-i lapurtutako diruak, euskal kultura eta nortasunaren aurka oro har hartzen dituen neurriek, garbi adierazten digute Francoren semeek harek hartutako erabaki berberak hartzen ari direla.

Herri honek aurrera egiteko duen borondatea kalean adierazteko momentua da: gure etorkizuna erabakitzeko ahalmena eskuratu nahi dugula, autodeterminazio eskubidea onartua ikusi nahi dugula, adierazteko frantses zein espainiar estatuen aurrean,ez gaudela prest gure herriaren suntsipenaren ikusle lasaiak izateko.

Horregatik, otsailak 16rako manifestazio nazionala konbokatu dugu Donostian. Arratsaldeko 17:30ean Antiguotik aterako da. Elgoibartik 16:00etan aterako da autobusa, Plaza Handitik.

"Utzi bakean Euskal Herria. Autodeterminazio Eskubidea" izango dira manifestazioaren lemak.

Donostian eikar ikusiko dugulakoan, besarkada bero bat.

Elgoibarko Batasuna

## Urruzunoren begi ezkutua

# Biharamuna



Moja batek sua eskatu zidan. Bin Ladenek zerbait edatera gonbidatu ninduen. Drakulak kalimotxo gorriz tindaturiko letaginak erakutsi zizkidan. Eta `Zorro'a etengabe ari zitzaidan begira, antifaz ilunak ezkutatzen zituen begi tentagarriez.

Inauteri gauaren biharamunak badauka sentsazio nahasgarrietatik zerbait. Ezagunak ezezagun bihurtzen zaizkigun gauaren oroimenekin bueltaka, geure buruari gaidetzen diogu ea gau hartan ez genuen egunero daramagun antifaza etxean ahaztu.

IÑIGO OTAÑO

ASTEKARIA

BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
z- 943 74 41 12
Publizitatea:
r- 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

barrenetopagunea.com
Helbide irriormatikoa:
www.topagunea.cornibarren
Anorrmurrneert
Elguiparito Izarra

Loeukrzinak Elgoibarko Udala **ZUZENDAIIIA** Eli Aizpuru **.KAT1TARIAK** Irati AgirreazaktlegL **ASI8r** Orbea **PuBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Iker Diego **ADMINISTRAOCIA** Amaia Rodrigez **GERENTZIA JOEI** Pell Uriguen **KOLADORATLAILEAK** Ainhoa Locroso, Nestor Fuente, Peno Mendizabal, Juan M. Elustondo, AJberto Ansuategi. Edurne Birbao. GetzonArneta. Lorea Perez sle Alkeniz, Jokin Martioez, Montse Arregi,JUBIlit0 Gorostza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. ela Urruzuno L.T.. **AZALEXO ESAERA ZAJTARRA** Golzon Garateren liburutik **iNPRDEATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.025 ale **LEGE GORDAILUA** 88-1.038/92 ISSN 1139-1855

EIGOIBARK0......

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kalarra Sadak eta Aldundiak diraz lagundraako aldizkaria.*

4P kutxa
tOrl eskt,-

DANOBAT

£14 G 0 111 41' P0T,ARTA
GR111-0 DANDISAT



• Mutil gazte batek deitu digu honako hau esateko: "Gazteek, **asteburuetan batik bat, Madala aldea zikintzen dute.** Dena botilaz eta edalontziz beterik lagatzen dute auzoa eta gutxi balitz, txiza kiratsak ere ez du bertatik alde egiten. Udaltzainek, nire ustez, ez diete lekua garbi mantentzeko ezer esaten. Kontu hau arazoa bihurtzen ari da eta neurriren bat hartu beharko Iitzatekeela uste dut".

## TXALOAK



• Joan den larunbatean mozorro Iehiaketa antolatu zuten **Gurutze Gorriko partaide guztiak** txalotu nahi ditu herritar batek: "Benetan mirestek.oa da zuek etxe barruan eta etxetik kanpo egindako lana. Mozorro lehiaketan parte hartu zuten lehiakide guztiei ere, zorionak. Jarraitu horrela eta animo! Hasi hurrengo urteko mozorroak prestatzen!

• Bi emakumek "Nagusiian" **elkartean boluntario gisa lan egiten duten jubilatuak** txalotu nahi dituzte: "Benetan eskertzekoa da egiten duten lana, Zaharren Egoitzan, bakarrik daudenei edota mugitu ezinik daudenei eskaintzen dizkien momentu onak ezin dira diruarekin ordaindu. Horrelakoak kontutan hartu behar genituzke herrian".

• Guraso talde batek **Ikastola** txalotu nahi du, "euskal **inauteriak bultzatzeko asteartean egin zuten kalejira eta plazako saioa** politak eta ikusgarriak izan zirelako".

• Emakume batek azkenaldian **anbulatorioan izandako berrikuntza** txalotu nahi du: "Kontsultara sartzeko zain daudenek irratia eta musika entzuteko aukera dute. Gainera, euskarazko irrati kate bat zegoen jarrita eta horrela jarraitzera animatu nahi ditut bertako langileak

Ainhoak, Lidek eta Gorkak eskerrak eman nahi dizkiete **Patxi Iraola eta Jose Antonio Iñurrieta Udaltzainei** larrialdi batetik ateratzen lagundu zietelako.

Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronikoa, izena eta zure telefono zenbakia zebaztuz, barren@topagunea.com helbidera.




©KOKOE 2002,17 I

# Karnabalak argazkitan

*Pasatu dira inauteriak efa ondo pasatu ere. !az ez bezala, eguraldia lagun izan dugu efa ajeak aje, hurrengo urtera arte zapore ona laga digute. Ostegun todi eta ostirai argala pasa ostecrn, larunbatean, motorrak berotzeko, Atxutxikarookea izan genuen eta mozorro lehiaketak gau luze bati hasiera besterik ez zian eman. Astearte arratsaldean, umeak izan ziren protagonista, gero, gauean, nagusiagoei erreleboa emateko. Hona hemen aipatutako honen guztiaren testiganiza zuzena.*

























Kraft
REAL
SOCIEDAD
SAN SEBASTIAN





TAXI


**TALDEKA**
**1.saria:** Coyote Dax 200 euro
**2. saria:** Eraztunen Jauna 150 euro
**3. saria:** La corte de Cleopatra 100 euro

**BANAKA**
**1. saria:** Antonia "La chacha" 150 euro
**2. saria:** Gospel 100 euro
Koreografia onena

**ATERPEXENETEN**
Burbuxak 75 euro

## Banakako lehen saria Ibai Leon "Antonia la ixatxa"


*Ibai Leon*

### "Orain arte hiru aldiz irabazi dut saria"

**- Zenbat aldiz irabazi duzu mozorro lehiaketa?** Hiru aldiz.

**- Zergatik uste duzu urtea loan eta urtea etorri zure eskuetan erortzen dela saria?** Txorradak eitxen ditxudalako. Ez dakitx, igual, dantzan ondo eitxen dotelako izango da.

**- Zer nolako maila ikusi zenuen lehiaketan?** Ona, bestiak ere oso ondo zaozen.

**- Hurrengo urtean ere irabazteko asrnorik ba al duzu?** Urten urtengo naiz baina ezingo dot laugarren urtez jarraixan irabazi.

**- Zer egingo duzu irabazitako diruarekin?** Kutxan sartu dot, ahorratzeko.

**- Orain arte atera dituzun mozorroen artean, zein da zure gustukoena?** Iazkua, Tarnaraz jantzitxa urten nintzanekua.

**- Etxean fregonarik edo erratzik pasatzen al duzu?** Ez (barre algarak).

## Taldekako lehen saria. loyote



### "Azkeneko momentuan erabaki genduan lehiaketara aurkeztia eta batere prestau gabe atara ginan"

**-Zenbat lagun aurkeztu zarete lehiaketara?** 14 pertsona gaude taldian.

**-Nolatan elkartu zarete hainbeste lagun?** Kuadrilakuak gera eta normalian, danak batera ibiltzen gera

**- Zenbat denbora pasatu duzue koreografia ilcasten?** Bat ere ez, lehendik genekixan kantu hau dantzatzen eta azkeneko rnomentuan erabaki genduan ataratzia. Gainera, danak berdin jantzitxa gaozenez... Elizako arkupietan behin ensaiatu genduan eta aurrera.

**- Behin entsaiatuta egoteko, ondo atera zitzaizuen, ezta?** Bai, uste baino hobeto.

**- Irabazterik espero al zenuten?** Sorpresa galanta izan zan guretzat. Ez genduan inola ere irabazterik espero.

**- Zein zen faboritoa zuen ustez?** "El sefior de los anillos" baina gero, ez zan grabatuta zakatena oso ondo ulertu.

**- Zer egingo duzue jasotako diruarekin?** Oraingoz, banatu ein dogu, baina gero bazkarixa edo afarixa eingo dogu.

2002-11-15

# Otsailaren 20an zozketatuko dira Olasoko hilerriko nitxo berriak

## Hilobi bakoitzaren prezioa 1.292 eurokoa da (215.000 pta)

Olasoko hilerria handitzeko bigarren faseko lanak amaitu dira. 152 nitxo berri eraiki dituzte fase honetan eta herritarei nitxoak eskuratzeko aukera eman zaie. Aurreko fasean erikitako 268 nitxoekin guztira 420 hilobi berri egin dira. Nitxoen erosleei jakinarazi nahi zaie datorren otsailaren 20an, asteazkenean, zozketa egingo dutela eguerdiko 12:00etan udaletxeko Pleno Aretoan. Zozketan erabakiko dena, bakoitzari zein nitxo egokitu zaion izango da. Izan ere, nitxo gehiago daude eraikita saldu direnak baino. Guztira 73 nitxo saldu dira, bakoitza 215.000 pezetaren truke (1.292 euro). Nitxoen jabeek hilobia 99 urtez erabiltzeko eskubidea izango dute, panteoien jabeek bezalaxe.



***Nitroen jabeek 99 urtez** eraLili **ahal izango dituzte hilobiak.***

**Nitxoak elkarren ondoan**

Zozketan eskatzaile bakoitzaren izenarekin sobre bat egongo da, eta nitxoak elkarren ondoan eduki nahi izanez gero, aurrez adierazi beharko dute Udaleko Gizarte Ongizate Sailean (Telefonoa: 943 74 10 08).

# 8 emakume elgoibartarrek egin dute produkzio egiaztapenari buruzko ikastaroa

## Guztira 12 emakume langabetuk hartu dute parte

joan den otsailaren 6an Debabarreneko 12 emakume langabetuk, tartean 8 elgoibartarrek, produkzioaren egiaztapenari buruzko ikastaroa amaitu zuten. IMHk Eusko Jaurlaritzaren eta Elgoibarko Udalaren laguntzaz, produkzio egiaztatzailea izateko aukera eman diete emakume hauei, honela fabrikazio mekanikoaren sektorean lan egiteko modua izan dezaten. 320 ordu teorikoren eta inguruko enpresetan egindako 140 ordu praktikoren ostean, otsailaren 12an jaso zuten diploma. Banaketan Itziar Etxeberria, Eusko Jaurlaritzako ordezkaria, Gillermo Garate, Alkatea, Joxean Egaña, IMHko zuzendaria eta Zigor Esnaola, Etengabeko Heziketako arduraduna izan ziren.



# Saharako umeak udan etxean hartzeko kanpaina martxan da

Iaz bezala, aurten ere, Frente Polisarioak Euskadin duen ordezkaritzak Saharako haurrak udan etxean hartzeko kanpaina jarri du martxan. Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak egitasmo hau bultzatzeko asrrtoa azaldu du. Beraz, udan ume sahararrak etxean hartzeko prest daudenek, sail honekin jarri beharko dute harremanetan informazioa jasotzeko.

# 50 lan aurkeztu ziren Toletxeko Karnahafetako marrazid lehiaketan

Miren Guillok, Alazne Zubiaurrek eta Raul Manzanok irabazi zuten larunbat gauean Toletxe tabernan egin zen inauterietako marrazki lehiaketa. Guztira 50 lan aurkeztu ziren, eta Toletxeko langileek saria hiru Iagun hauei ematea erabaki zuten. Inauterietako karetak izan ziren marrazkietan nagusi, baina izan zen paper gainean bere koadrilako lagunak mozorrotuta irudikatu zituenik ere. Hiru sarituek Toletxen afaltzeko aukera izango dute.

## GOBEHNUAK GAZTEEI KALEAN ALKOHOLA EDATEA DEBEKATU NAHI DIE

# *BOTILOMEN* LEGEAK, GAZTEEK ALKOHOLAREKIN DUTEN ARAIOA KONPONDUKO AL DU?



### M1REN ESNAOLA

**16 urte, ikaslea**

Kaleko kontsumoa debekatzeak ez du ezer konponduko. Gazteak tabernetara joango dira edatera edo kalean ezkutuan edango dute. Gazte askok kalean edaten dugu, eta alkohola arazoa izan daiteke.

### JUANJO CRUZ

**39 urte, soldadorea**

Gobernuak baino norberak kontrolatu behar du alkoholaren arazoa. Asko edaten dute gazteek eta kontua informatzea eta hezitzea da, alkoholik edan gabe eta beste drogarik hartu gabe ere ongi pasa daitekeela erakustea.





### MIRARI ARRIZABALAGA

**19 urte, ikaslea**

Ez dot uste arazua konponduko dabenik. Nahiz eta "boteiloia" debekau, jendiak eingo dau hala ere. Baten bati erosteko esan, hor zihar jun eta ezkutuan erango dabe.

### GORKA AROSTEGI

**21 urte, mekanikoa**

Ezta pentsau ere, eta hemen gitxiao gainera. Eratia tradiziva izan da Euskal Herrixan txikiteotik hasitxa, gaur egun kalian erateraino. Debekatzen badahe, igual gehixao erango dabe gaztiek.





### GASPAR SAN JUAN

**32 urte, enkargatua**

Ez, gazteei beste alternatibarik ematen ez dieten bitartean, edaten jarraituko dute. Entretenitzeko eta arratsaldea pasatzeko modurik errazena eta merkeena da. Izan ere, zinerako edo kiroldegirako sarrera askoz garestiagoa da.

### SA1OA GONZALEZ

**14 urte, ikaslea**

Ezetz uste dot, jendia alkohola edateko ezkutau eingo da eta kitto. Hala ere, holako neurrixak hartzia ondo iruditzen jata, alkohola kaltegarrixa dalako, baina batzutan edarixa kentzia gehiegizkua izan leike.



SUKATU
S.COOP
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

Anchlistegui
Sanyfer
ZERAMIKAK
ETA ETXERAKO
TRESNERIA
Olaso industrialdea
Olasope, 5 • 20879 - ELGOIBAR
Tel: 943 74 33 44 - 74 23 71
Faxa: 943 74 37 11

# GAztiA NAIZ

# BaRRen



GAZTE EHIGARRIA . 2002ko otsailaren 15a. X urtea/393. zkia

florian Rocidgug Eigoiborren bia den andaitizin

## 'Andaluziako et, loskadikoVileek

## dibertitzeko modu desberdinak dituzte

P9

**Florian RodriguEzELKARR1ZKETA Curriculum-a GA1A SiddhartaLoTsAGABE**

"EPISODE

Bikote honek tinbalen eta melodien arteko konbinazioa egiten du, eta hori du, hain zuzen ere, gustuko Janirek, tinbalen hotsek eta bestelako doinuek bat egitean sortutako musika. Taberna baten entzun zuen lehen aldiz eta denhorarekin gustuko rnusika bihurtu da berarentzat. "Taberna baten entzun naban eta ez ninduan asko erakarri, baina astian zihar barrutik kantau eitxen nabala konturau nintzan eta, entzun da entzun, oin gustau eitxen jata". "Played a live" lehenengo kanta ezagunagoa bada ere, diskoko bigarrena gustatzen zaio Janireri gehien "Samb addagio", hain zuzen ere. Melodiak azpimarratuko lituzke Janirek diska honetatik: "Melodixa bakoitzak zeozer adierazten dau. mornentu batzutan doinu tristiak, beste batzuk poztasuna erakusten dabe".



Janire Eguren

entzun

## FLORIAN RODRIGUEZ

# "HuElvako Eta Elgoibarko EZ bata bEstEarEn aurkakoak'

**AZENTO NABARMENIK EZ DUELA DIOEN ARREN, ANDALUZIAR PETO-PETOA DA FLORIAN RODRIGUEZ (24 URTE). HERRITAR ASKOK EZAGUTUKO DUZUE, IZAERA IREKIKOA ETA HIZTUNA BAITA. DUELA IA BI URTE ETORRI ZEN FLORIAN HUELVATIK ELGOIBARRERA, IMH-N IKASTERA. HISTOR1A IKASKETAK ETA LANTOKIKO LANA TARTEKATZEN ZITUEN BERE JAIOTERRIAN. BAINA LANTOKIAN ARITZEKO TITULOA ESKURATZEA NAH1 ZUENEZ, ELGOIBARRERA ETORTZEA ERABAKI ZUEN. GURE ARTEAN NOLA BIZI DEN ETA EUSKALDUNOK NOLA IKUSTEN GAITUEN JAKIN NAHI IZAN DUGU. EUSKARA IKASTEKO EGIN DITUEN AHALEGINEN BERRI ERE EMAN DIGU.**

-Zergatik aukeratu zenuen IMH-ra etortzea?

Historia ikasten ari nintzen eta aldi berean lantegi batean egiten nuen lan. Lantokian aritzeko Maestria tituloa atera nahi nuenez, zentruei buruzko informazioa biltzen hasi n n

tzen. Andaluzian 3 aurkitu nituen, baina maila oso baxua zutenez, Madril, Bartzelona eta Euskadin hasi nintzen begira. Mailarik altuena Euskadiko ikastetxeek zutela ikusi nuen eta Usurbil, Bilho, Llodio, Irun eta Elgoibarrera bidali nituen sartzeko eskariak. Guztietan onartu ninduten, baina Elgoibarrera, IMH-ra, etortzea erabaki nuen. Historia ikasketak lanean hasten naizenean jarraituko ditut.




-Zer moduz moldatu zara hemengo hizimodura?

200.000 biztanleko hiri batean (Huelva) hezitakoa naiz eta kosta egiten da herri txiki batetara ohitzea. Niri hiriak gustatzen zaizkit, Sevilla, Madril... eta antzerako hiriek eskaintzen duten aukera aniztasunak erakartzen

2002-11-15

# Dhiturak dEsbErdinak dira, bair

nau. Bestalde, jendearen izaera ere desberdina da, itxiagoak zarete. Herri txikietan jendeak bizimodua modu batean antolatuta izaten du txikitatik eta aldakuntza gutxi izaten ditu. Hori dela eta, zailagoa izaten da bertan integratzea. Koadrilen kasua jar daiteke adibidetzat, han ez dago horrelakorik. Hala ere, ohitura ezberdinak izan arren ez dira bata bestearen aurkakoak.

**"Ia lagun guztiak kanpoan ditut lanean, bata Madrilen, bestea Bruselan..."**

-Hemengo ohituretatik zeinek harritu zaitu gehien?

Gazte jendeak dibertitzeko duen modua, adibidez, desberdina da. Hemen, gazteak tabernetan barruraino sartzen dira eta musika oso altu egoten denez, ezin izaten dute hitz egin. Han, berriz, tabernara tragoak ateratzera bakarrik sartzen gara eta kanpoan edaten ditugu hitz egiten dugun bitartean.

-Euskara ikasten ere saiatu zara, ezta?

Bai, hemen bizi naizeanz, logikoa iruditu zitzaidan euskara ikastea, Alemanian alernana ikasiko nukeen moduan. Zoritxarrez, IMH-n ingelesa ikastea eskatzen digute eta euskara alde batera laga behar izan nuen. Izan ere, OHO-tik COU-ra frantsesa ikasi dut eta ingelesez ez dakit tutik ere.

-Zer moduz dago lan egoera Huelvan?

Oso gaizki. Betidanik izan da indus trialgunea, duela 3.000 urtetatik lan egiten baita mineral meategien inguruan. Gaur egun, ordea, lan gutxi dago eta zonalde guztian du eragina, dena industria horren inguruan eraikita baitago. Beste irtenbidea nekazaritza da, baina gogorregia da. Beraz, kanpora joatea besterik ez dago. Ia lagun guztiak kanpoan ditut lanean, bata Madrilen, bestea Bruselan... Katalunian milioi bat andaluziar daude, atera kontuak!

-Zerbait esaten all dizute azentoarengatik'?

Behean hemengo azentoa hartu dudala esaten didate. Andaluzian ere leku batetik bestera azentoak aldatu egiten dira, hemen euskararekin gertatzen den moduan. Lepeko pertsona zaharrei kosta egiten zait ulertzea, azento itxia baitute. Zer esanik ez Almonteko bizilagunei, Rocio famatua egiten den herrikoei.

**"Gazte jendeak dibertitzeko moduak harritu ninduen gehien Euskal Herritik"**



## :"LARUNBATAK"

JON ARRETXE

CO urangoko azokara bisita egin: liburuak erakarri eta erosi ostean. Jon Arretxek Elkar argitaletxearekin kaleratutako Larunbatak liburua izan da Maiderrek irakurri duen azkena. Ezagunak dira Jon Arretxek honen aurretik idatzitako beste eleberri batzuk ere, baina Maider Diezentzat hau izan da estreinakoa. "Ostegunak eta Ostiralak ez nitxuan irakurritxa. baina liburua ona zala esan ziaten eta gogua piztu zian. Hau irakurri eta gero laguneri eskatu dizkiet aurrekuak". Ez omen da oso irakttrzalea, baina gustura irakurri du liburu hau. Lan honen nondik norakoak azaltzeko eskatu diogunean zera esan digu Maiderrek: "Txakur batek kontatzen ditxu pasatzen jakozen gauzak, baina pertsona baten ikuspuntutik. Idazliak erabili dahan espresatzeko modua gustau jata. Benetan pasau dattezkeen gauzak dia, errealtdadia CITCfiejatzen dau". Gazteei gomendatzeko moduko liburua da Maiderren ustez: "Igual 12 urteko batek ez ditxu gauza batzuk ulertuko, baina bestela, edozein gaztek irakurtzeko modukua da".

irakurri



GAIA

# lan mundura

Curriculum VitaE-a lan tresna bat denik ezin esan genezake, bai, ordea, lana biiatzeko trEsna. NorbErarEn Ezaugarriak biltzEn dituEn dokumentua da: Ezaugarri pErtsonalak, ikaskEtak, lan esperientzia, zaletasunak... Gure burua lanpostu batEra aurkeztean Curriculumak bErE biziko garrantzia du. BatEtik, lana Eman diezazukEnaren aurrean aurkezteka, bestetik aukEraketa probEtarako edo elkarrizketa pertsonaletarako txartEla EskuratzEko edo ElkarrizkEtatzailEak zurE ErrEfErEntziak izatEko. HautatzailEek curriculum asko jasatzen eta irakurtzen dituzte. Beraz, curriculum-a ahalik eta egokien eta erakargarriEn EgitEa komEni da, berE begietatik sartzEko. HEmEn hainbat argibidE emango dizkizugu curriculum vitac txukun eta egokia prestatzeko, baina ez pentsa horrekin lana ziurtatuta duzunik, gero saiatzEa da kontua.

## Curriculum motak

**Funtzionala:** Gaitasunak eta esperientzia profesionala. Lanean denbora luzez egon ez eta beraien ahalrnenak azpimarratu nahi dituztenentzat. Informazioa gaien arabera antolatu.
**Kronologikoa:** Lanean aritu arren, aldatzeko gogoa dutenentzat. Azken lan esperientzia eta ikasketak azpimarratu. Datuak aurrez egindakotik oraingo datuetara, edo alderantziz, sailkatzeko aukera ematen du.




**Laburra:**
-Orri bakarrekoa bada hobe. Esperientzia asko izanez gero, asko jota, bi orrialde.
-Ez erabili bi hitz, bakarrean esan dezakezuna adierazteko.
-Ez idatzi ezer esaten ez duten esaldirik.
-Esaerak ez erabili.
-Idea bat, esaldi bat.
-Hitz, esaldi eta parrafo motzak.

**Orriak:**
-Tamaina: Gutun tamaina (8 '5x11) edo -DIN A4. Txikiagoa galdu egin daiteke.
-Kalitate oneko papera: Pisu eta testuradunak (Kimberly edo Bond motakoak).
-Kolorea: Zuria, gris argia edo marfila.

**Letrak:**
-Tamaina: 12, 11, 10 edo 9 puntu.
-Mota: Arial edo Times New Roman

**Diseinua zaindu.**
Originaltasunaren eta sormenaren adierazle izan daiteke.

# ko IEhEn pausoa



## Biltdra

**Izenburua:** Curriculum Vitae
**Datu pertsonalak:** Izen abizenak, jaiotze data eta lekua, helbidea, telefono zenbakia, helbide efektronikoa...
**Ikasketak:** Egindako ikasketak, datak eta ikastetxea zehaztuz.
**Beste ikasketa eta ikastaroak:** Ikasketa osagarriak,datak eta lekua zehaztuz.
**Lan esperientzia:** Ikasketekin zerikusia duena edo curriculuma bidali dugun enpresarekin zerikusia duena. Daten, enpresaren eta betetako funtzioen datuekin.
**Hizkuntzak:** Hizkuntzen ezagutza maila. Tituluak izanez gero, aipatu.
**Informatika:** Ezagutza informatikoak: Sistema operatiboak, testu prozesatzaileak, kalkulo orriak, datu baseak, diseinu grafikoa, internet...
**Beste zenbait datu:** Gida baimena, zerbitzu militarra, egoera zibila...

## Aholkuak

- Orrialde bakarra, esperientzia zabala izanez gero, bi.
- Laburra. Informazioa ataletan antolatu irakurleari lana errazteko.
- Berrikusi eta erakutsi jendeari bidali aurretik.
- Aurkezpen eskutitza ere bidali.
- Ez da beharrezkoa argazkia. Bidaliz gero orijinala, eguneratua edo karnet tamainakoa
- Badira hainbat datu pertsonal ez aipatzeak ere inporta ez duena: Gidabaimena, NAN zenbakia, egoera zibila, erlijioa...
- Bi curriculum mota eduki: Bata teknikoa eta bestea zure gaitasunak azpimarratzen dituena. Lanpostuaren arabera, bata edo bestea bidali.
- Kopiak eskura izan beti.
- Hizkuntza zuzena: Erru gramatikal eta ortografikorik ez.
- Papeta: Kalitatezkoa, zuria, gutun tamaina edo DIN A4
- Makinaz edo ordenagailuz idatzia (azken hau eguneratzeko egokiagoa)


**BARREN** *astekarian* **ZUZENDARIA behar da**

**ESKATZEN DA**
- Kazetaritzan lizentziatua
- Lantalde bat zuzentzeko gaitasuna
- Harremanetarako doaiak
- Euskara maila ona (ahoz eta idatziz)
- Gida-baimena eta autoa

**BALORATZETI**
- Esperientzia sektorean
  Elgoibar ingurukoa izatea
- Informatikako ezagupideak

1144
**- Egun osoko lan kontratua**

**Izena emateku azken eguna:**
**OTSAILAREN 25a (astelehena)**

**Etgoibarko Izarra kultur elkartea**
Ubitarte 4, behea 20870
Elgoibar
Tel.: 943 74 16 26 (Imanol)
E-posta: elgizarra@topagunea.com

# lots@gabE

*Guruzne Urkidi, Jokin Altuna eta Miren Bastidaren laguntzarekin egiten dugu atal hau. Parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri BARRENera. Animatu!*



@ Defini ezaztt zure burua. Tipo arraroa.

@ Zer oparituko zenioke zure neskalagunari San Balentin Egunean? Lazo batekin bilduko nintzateke eta berarengana joan.

@ Eta zer idatziko zenioke tarjetan? Nire oparia gustukoa izatea espero dut.

@Zein da zuretzat inauterietako mozorrorik onena? Siddharta Gimenezena.

@ Zertaz ez zinateke inoiz mozorrotuko? Aznarretaz.

@ Zein animaliarekin identillkatzen duzu zure burua? Saguxaharrarekin.

@ Zure lagunek "botiloia" egin behar dutela esan dizute. Zer zenieke?

Ni ere zuekin noa.

-Ez, nik ez dut egingo.

-Duda asko eduki arren, zuekin noa.

Bai, bai, ni ere zuekin noa, esango nieke, baina ez dut ordainduko, eh! Ni..."de gorroneo".

@ Zer iritzi duzu "rebalida" delakoari buruz? Selektibitatea bezain "putada" da, edo agian gehiago.

@ Zer da zure gorputzetik gehien guztatzen zalzuna? Begiak.

@Eta gutxien? Zergatik? Tripa, antiestetikoa delako.

• Zure neskalagunarekin zaude eta ohean gaizki funtzionatzen duzula esan dizu. Zer egingo zenuke?

-Biagra erosi

-Sexua ez dela garrantzitsuena esan.

- Lotsatuta alde egingo nuke.

Biagra erosi eta opari bat ere egingo nioke.

@ Zer arnesten duzu normalean? Aznar hiltzen dudala.

@ Zer egingo zenuke lehendakaria izango hazina? Euskadi eta Kataluinia askatuko nituzke.

@ Zer iritzi duzu Estatu Batuetako atentauei buruz? Ados nago eta gainera, Bin Laden ikusiko banu, autografoa eskatuko nioke.

http:/ SiddhartaGimenez@com / **17** urte

LE1110KETO

Eae--

LIBURU BATeskurat.

HILABETE HONETAN "BAINA BIHOTZAK 010", XABIER MONTOIAREN IPUIN LIBURUA ESKURATZEKO HONAKO GALDERA HONI ZUZEN ERANTZUN BEHAR 1:110ZU:

ZENBOT IPC1111 LIBURU iporzi DITU XfiBIER n"

Aurreko liburuaren lehiaketako irabazlea Pepi Calleja izan da. "Larunbatak", Jon Arretxeren liburua eskuratu du. Erantzun zuzena "Basaurikoa" zen. Zorionak.



# erreBalida





**AINARA LADRON ETA HARITZ ARRIETA**

*Batxilergoaren bukaeran errebalida proha ezarri nahi du Madrilgo Gobernuak. Azkenaldian asko hitz egin da gai honi huruz eta Hezkuntzaren tate Legearen izenean egin dituzten berrikuntzekin ez daude ados hatxilergoko ikasleak. Gu Ainara Ladron eta Haritz Arrieta batxilergoko ikasleekin izan gara errebalidaren kontua argitu asznoz.*

Zer da errehalida?

Ainara: Hezkuntzako Kalitate Legian barruan, batxilergo bukaeran, selektibidadian ordez eingo dan prueba orokorra da. DBH 2.tik 3. era pasatzeko esamin bat ein nahi dabe, beste bat DBH 4 amaitxutakuan eta hirugarren esamina batxiIer bukaeran.

Kalitate Legeak zein berrikuntza ekarriko **ditu?**

**Ainara:** DBHko bigarren zikluan jendia hiru ibilbidetan banatuko dabe: unibersidadera, lanbide hiziketara edo lan mundura juteko. Hor bereizketa haundixak eingo dia. Jende asko juten da unibersidadera, eta horren arrazoietako bat moduluetan aukera gutxi dauala da.

Zein abantaila ditu errebalidak?

**Ainara:** Ez daka inungo bentajarik. DBH frakaso bat izan dala esaten dabe, jendia gutxi preparatzen dala. Nik bi esamin gehixao ipini ditxuztelako ez dot gehixao ikasiko.

**Haritz:** Esaten dabe hau eitxeko arrazoia dala Europan maila bat eskatzen dabela eta Espainiako nibela ez dala ailegatzen, baina Euskal Herrixan ematen da mailia.

Beraz, eragozpenak haino ez **al** dizkiozue ikusten **errebalidari?**

**Ainara:** Bai. Beraien helburua dana unifikatzeko sistema bat ipintzia da. Lehen, temarixuan Euskadikin lotutako gai gitxi ikasten bazian, oin gitxiao, danok berdina ikasi biharko dogulako.

**Haritz:** Beste asmo bat unibersidadera jende gutxiao jutia da, eta hori ere desabantaila da.

Batxilergoa **gaindituz** gero ziurtatuta al dago unibertsitaterako sarrera?

**Ainara:** Oin ez dao zertan selektibidadia aprobau biharrik batxilerreko titulua lortzeko, eta gero errebalidia gainditu ein biharko da. Gero unibersidade bakoitzak sarrera azterketak eingo ditxu, eta aukeria baten baino gehixaotan euki nahi dabanak, azterketa asko ein biharko ditxu.

Ikasleok jaso al **duzue errebalidari buruzko** informaziorik?

**Haritz:** Selektibidadia kentzia erabaki zabenerako pentsauta zakaten beste zeozer ein bihar zala, baina ikasliok apenas jaso dogu informaziorik eta ezin dogu ezer ein.

ERREBALIDA

NORK EGIN BEHAR ?

**Lehenak** gaur egun DBHko 3. mailan daudenak.

' r2.4DARREAN?

2004-2005 ikasturtean.

ZERTARAKO?

**Batxilergoko titulua lortu eta unibertsitatean sartzeko.**

2002-II-18

---

masturbazio



Eli Moreno
SEXOLOGOA

Prest al zaude jolasteko? Beno ba, adil 7er flatorki7IT hunira sexualitatea hitza entzutean?

Bota: zakila, zuloa, mina, beldurra, haurdunaldia, kondoia, HIESa, espermatozoideak, obuloak, "insert coin", follatzea, zakila, zakil handia...

Oso ondo, zakila hiru aldiz errepikatu duzu! Zergatik ?

Zuretzako hau al da benetan sexualitatea?

